

ANTXIÑAKO  FOTOGRAFIXIA

## Olabarrietako erlijioso batzuk

**A**zkenengo gizaldi erdi honetan gure gizartia dezente aldatu dala agiriko kontua da, eta hamarkada batzuetan gora goiazekoa ondotxo eta hurretik ezagutu ditzugu kanbixuok. Esate baterako, sasue batian **mutiko pillia faten zan fraide edo abadetarako ikasketak egittera**, eta **neskak komentu edo monasterixotara monjak izateko asmotan**. Arrazoiak era askotakuak suertaitzen ziran: benetako bokaziñuak baztertu barik, eragin haundixa eukain, bestiak beste, orduko elizaren inddarrak, familixen erlijio-giro sakonak, seme-alaba batzueiri urtenbidia topaitteko premiñiak edota ikasketa merkiak izateko aukeriak.

Oñatin **Arantzazuko frantziskotarrak eta kaleko agustiño laterandarrak kompetentzia latzian** jardun euen luzaruan, ikasliak eurenganaketako. Hasiera batian Bitorixako seminarixora eta geruago Donostiakora faten ziran mutiko gaztiak be etziran gutxi. Baiña, hainbesterañio izan ez arren, beste ordena batzuetan be sartu ziran oñatiar banaka batzuk: **pasionista, paul, marista, jesuitta, marianista, korazonista** eta abarretan. Emakumientzako komentu-monasterixo honeik egozen orduan herrixan: **Bidaurreta, Santa Ana, Altxibarko benediktinena, Ospitaleko nahiz Zañartuko karidadeko monjena eta Santa Marinako sierbena**.

Askok ikasketak akabaitten ezpazittuain be, kaleko zein auzuetako **txantxikuar ugari izan zan fraidegei, monjagei edo abadegei**. Auzuen artian **Olabarrieta nabarmendu zan** sasue batian. Horren adibidetxo bat gaurko fotografixia dozue. Bertan ikusi leikienez, Joxe Mari Agirrebaltzategi auzoko kapillauak animauta, **hainbat elizgizon olabartar alkartu ziran euren senide eta lagunekin batera**, orain dala 60 urte pasatxo. **Muestra txiki bat besterik ezta**: gizakumiak bakarrik agiri diralako eta hoinen artian be askoz gehixago ziralako Olabarrietakuak. Auzoko taberna aurrian dagoz, atzekaldian ezkerretara Zelabarren eta Taberna Zaharra (Igartua-enea) baserrixak ikusten dirala. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek ditzuzue auzotarrok.

Goixeneko illaran: **Leandro Ugarte, Simonena; Juan Joxe Irizar, Aittapekua; Benito Zubia, Zelabarregua; Jeronimo Araolaza, Aldaikua**; eta **Felix Murguzur, Arotzena**.

Erdiko illaran, zutik: **Jenaro Igartua, Taberna Zaharrekua; Felix Ugarte, Errotakua; Sebastian Orueta, Santzakua; Andres Zubia, Legarrekua; Federiko Billar, Zediagakua; Patxi Elkoroiribe, Billar Goittikua; Eujenio Markuleta, Basazabalgua; Eulogio Kortabarria, Erretxingua; Joxe Mari Ugarte, Errotakua, korazonistia; Paulo Lazkanoiturburu, Juanpuena; Joxe Mari Lizarralde, Ugarte Haundikua; Ramon Lizarralde, Ugarte Haundikua, korazonistia; Pedro Ugarte, Ugarte Txikikua; eta Jabier Ugarte, Errotakua**.

Beheko illaran, jarritta: **Reyes Zubia, Zelabarregua, agustiño laterandarra; Anastasio Aizpeurrutia, Errementarikua, maristia; Bittor Belategi, Tiruena, korazonistia; Joxe Murguzur, Arotzena, frantziskotarra; Leandro Igartua, Borraixena, Antzuelako parrokua; Julian Irizar, Aittapekua, jesuittia; Antonio Lizarralde, Ugarte Haundikua, korazonistia; eta Bixente Ugarte, Simonena, korazonistia**.

Argazkixa Bixenta Igartuaren bittartez aillegau xaku. Argibidiak, berriz, Bixentak eta Reyes Zubiak eskuratu doskue. Eskerrik asko bixoi!